



Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 14koa; honen bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gomendatzen zaio bere jarduera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. eta 89. artikuluetan ezarritako prozedurara molda dezala eta adopzio hartzailearen eta adopziogaiaren artean dagoen 42 urte baino gehiagoko aldean oinarrituta adopziorako egokitasunaren ziurtagiria ukatu izana berriro azter dezala.

Aurrekariak

1. 2006ko ekainaren 12an, (...) jauna eta (...) andrea Arartekoari zuzendu zitzaizkion, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabekoen eta Familiaren Arloak erantzunik eman ez diolako bigarren seme-alaba bat Txinan adoptatzeko beharrezko egokitasun ziurtagiria lortzeko egindako eskabideari. Eskabidea 2006ko (...)aren (...)an aurkeztu zen, nazioarteko adopziorako espedientea izapidetzeko beharrezko dokumentazioarekin batera.

2004ko (...)aren (...)ean Arabako Adin Txikikoen Kontseiluak bikotea egokitzen jo zuen inolako zailtasun fisiko eta psikikorik ez duen 3 eta 6 urte arteko haur txinatarra adoptatzeko. (...)ko (...)aren (...)an neskato bat adoptatu zuten, (...)ko (...)aren (...)an jaioa.

2. 2006ko ekainaren 28an, erakunde honek kontu horren inguruko informazioa eskatu zion Foru Erakundeari.
3. 2006ko uztailaren 10ean, interesdunak erakunde honekin harremanetan jarri ziren eta jakinarazi zioten egun horretan bertan ebazpena jaso zutela, 2006ko (...)aren (...)koa, Adin Txikikoaren Kontseiluak emana; horren bidez, ez zen onartu egokitasun ziurtagiria lortzeko beren eskabidea izapidetzea. Halaber, kexan sakontzeko eskatu zuten, ez baitzeuden ados ebazpen horrekin eta bere arrazoibidearekin.

Adin Txikikoen Kontseiluak adopziorako egokitasun irizpideei buruz Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiek 2005eko ekainaren 1ean hartu zuten erabakian oinarritu zuen bere erabakia. Arabako Adin Txikikoen Kontseiluak 2005eko ekainaren 17an berretsi zuen aipatu akordioa; honela transkribatzen du:



"Nolabaiteko egokitasuna egon behar du interesdunen adinaren eta horiek adoptatu nahi duten adin txikikoaren adinaren artean, irizpide biologiko normalizatuari jarraiki; hala, beraz, ezin du 42 urte baino gehiagoko aldea egon eskatzaileetako gazteenarekiko.

Horrek esan nahi du haur edo nerabe bat adoptatu nahi dutenek adoptatu nahi duten adingabeak baino 42 urte gehiago izango dituztela asko jota egokitasun ziurtagiria emateko orduan.

Senar-emazteen eta izatezko bikoteen kasuan adin irizpideak zehazteko, kide gazteenaren adina hartuko da kontuan. Alde hori handiagoa izan daiteke honako kasuren batean dauden adingabeak adoptatzeko asmoa dagoela aipatzen denean:

- a) Familia berriz elkartzea*
- b) Anai-arrebak izatea*
- c) Premia bereziak dituzten haurrak eta nerabeak izatea*
- d) Aurretik adingabearekin bizi izatea*
- e) 7 urte baino gehiagoko haurrak izatea*

Bigarren adopzioa bada edo seme nahiz alaba biologikoa izan ondorengo lehena, lehenengoan adin muga aplikatu bada eta, gainera, lehenetasunezko zat ezarritakoak baino urte gutxiagoko adin txikikoa adoptatu bada:

- bigarren adopzioa, edo seme nahiz alaba biologikoa izan ondorengo lehena, ezingo da aurreko adopzioa eratu zenetik edo seme nahiz alaba biologikoa jaio zenetik sei hilabetera baino gutxiagora eskatu.*
- kasu honetan, adoptatutako adingabeak biologikoak edo aurretik adoptatutakoak baino gazteagoa izan behar du, seme-alabak familian sartzeko ordena naturala eralda ez dadin*

Hortaz, bigarren adopzio gisa edo seme nahiz alaba biologikoa izan ondorengo lehen adopzio gisa egokitasun ziurtagiria eskatzen bada aurretik adoptatutakoa edo seme nahiz alaba biologikoa baino zaharragoa den adingabea adoptatzeko, egokitasuna ukatuko da.

Honako kasu hauetan salbuetsi ahal izango da:



- a) *Familia berriz elkartzea*
- b) *Anai-arrebak izatea*
- c) *Premia bereziak dituzten haurrak eta nerabeak izatea*
- d) *Aurretik adingabearekin bizi izatea*

Adin Txikikoen Kontseiluak aipatu du (...) eta (...) (...)ko (...)aren (...)an eta (...)ko (...)aren (...)an jaio zirela, hurrenez hurren, eta 60-70 urte bitartean beren seme-alabak nerabeak izango liratekeela; hori arrisku faktoretzat hartzen da, bai adinagatik bai eboluzioaren fase horretan gertatu ohi den gainbeheragatik, baita adoptatutako seme-alaben eboluzio aldiagatik ere. Arrazoibidean erantsi duenez, 2006ko maiatzaren 5ean, Txinako agintariak egindako errekerimenduarekin bat etorriz, honakoa adostu zen: “*adin irizpideak aplikatuta, premia bereziak ez dituzten 2 eta 6 urte arteko haurrak bakarrik adopta ditzaketen familiek nazioarteko adopzioarako egokitasuna lortze aldera aurkeztu dituzten eskabideak ez onartzea*”.

4. Ebazpen horren edukia ikusita, 2006ko abuztuaren 4an, informazio gehiago eskatu zen eta aurretik eskatu zen informazioa bidaltzeko ere adierazi zitzaion Administrazioari, horretarako eman zen epea jada igaro baitzen. Gainera, zenbait gogoeta egin ziren, funtsean, arlo horretan aplikagarria den lege mailako arautegiak ez duela halako adin mugarik ezartzen eta bidezkoena eskatzaileen ezaugarriak eta beste adopzio bat egiteak familia horri ekar diezazkiokeen abantailak banaka baloratzea izango litzatekeela.
5. 2006ko urriaren 31n errekerimendua egin zitzaion Administrazioari, ez baitzien gure eskaerei erantzun.
6. Martxoaren 28an beste errekerimendu bat egin zitzaion Arabako Foru Aldundiari, erantzuten ez zuelako, eta idazki berean helarazi zitzaion Arartekoak egindako gomendio orokorra, hots, “*adin tartearen garrantzia adoptatzeko egokitasuna zehazterakoan*” (2006ko urteko txostenaren II. kapituluko 1. atala, 316-323).
7. Azkenik, gure lehen informazio eskaera egin eta urtebetera baino gehiagora, hots, 2007ko uztailaren 12an, Arabako Foru Aldundiak bere erantzuna helarazi zigun.



Jakinarazi digunez, 2006ko otsailaren 23an txostena jaso zuten Adopzioen Txinako Zentrotik, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bidez; txosten horren arabera, Txinan Hagako Hitzarmena sartu zen indarrean. Hitzarmenari jarraiki, herrialde horretan nazioartean adopzioan ematen diren adingabeek 2 urte baino gutxiago izan ohi dituzte, zenbait salbuespen badiren arren (6 urtetik gorakoak eta ezinduak); horiek horrela, Espainiako erakunde publikoei eskatzen zaie ez ditzatela izapidetu Adopzioen Txinako Zentrorra zuzendutako eskabideak, beren iritziz, adopzio hartzaileek 2 eta 6 urte arteko adingabe osasuntsuak bakarrik adoptatu beharko lituzketen kasuetan. Adopzioen Txinako Zentroaren txostena ikusita, Arabako Adin Txikikoen Kontseiluak honakoa erabaki zuen 2006ko maiatzaren 5ean, Txinako agintariek egindako errekerimenduetarekin bat etorriz: *“adin irizpideak aplikatuta, premia bereziak ez dituzten 2 eta 6 urte arteko haurrak bakarrik adopta ditzaketen familiek egokitasuna lortze aldera aurkeztu dituzten eskabideak ez onartzea”*.

Bere erantzunean azpimarratu du haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea agindu bidez ez garatzeak lege hutsunea eragiten duela adinarekin erlazionatutako egokitasun irizpideak zehazterakoan Euskal Autonomia Erkidegoan adopzioak izapidetzeko eta, horren ondorioz, Foru Aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak zaintzeko eta babesteko politikak betearaztearen arloko eskudunak izaki, lan taldea eratu zutela irizpide horiek finkatzerakoan jardun unitate bera ezartzeko. 2005eko maiatzaren 12an talde horrek aipatu zentzuan zenbait irizpide aplikatzea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzak legea arau bidez garatu bitartean, eta 2005eko ekainaren 17an Arabako Adin Txikikoen Kontseiluak irizpide horiek berrestea adostu zuen. Bere erantzunean, Aldundiak aipatu irizpideak transkribitu ditu eta beste kasu bat ere erantsi die ebazpenean jaso zituen bi zerrendei:

e) 7 urte baino gehiagoko haurrak izatea

Aldundiak esan duenez, erabaki horrek aurretik indarrean zegoen adinaren inguruko irizpidea aldatu zuen; horren arabera, adopzio hartzailearen eta adopziogaiaren arteko gehienezko adin tartea 40 urtekoa zen, bikoteek egindako eskabideen kasuan, adopzio hartzaile gazteenaren adina aintzat hartuta; irizpide hori indarrean omen zegoen (...) jaun-andreei lehen egokitasun ziurtagiria eman zitzaienean. Une hartan, haiek (...) eta (...) urte zituzten, hurrenez hurren, eta horregatik egokitzat hartu ziren 3 eta 6 urte arteko haurra adoptatzeko. Gaineratu du, ondorioz, bikoteak bazuela lehengo irizpidearen berri bigarren eskabidea aurkeztu aurretik.



Aipatu du Txinan haurrak adoptatzeko prozesuei dagokienez azaldu diren eta bai Espainiako bai Txinako agintaritzak aplikatzen dituzten irizpide guztiak ahoz eta idatziz jakinarazi zitzaizkiela (...) jaun-andreei eta, bigarren eskabidea aurkeztu ondoren, GOFeko Adingabekoen eta Familiaren Arloko talde teknikoak ahalik eta ardura handienaz jakinarazi zizkiela (...) jaun-andreei aurreko datu guztiak eta gainerako irizpideak, horien artean, adoptatutako haurrak ordena kronologikoari jarraiki barneratu behar zirela familian, premia bereziak dituzten adingabeak direnean izan ezik.

Dioenez, 2006ko (...)aren (...)an (...) jaun-andreei Adin Txikikoen Kontseiluak (...)aren (...)an emandako ebazpena bidali zitzaien eta, horren kontra, errekurtsioa jarri ahal izan zuten jurisdikzio zibilean, administrazio egintzan bertan berriaz aipatu zen moduan.

Azkenik, uste du (...) jaun-andreek arreta egokia jaso dutela eta unean-unean izan dutela beren eskabidearen egoerari eta Araban eta Txinan adopzioa izapidetzeko aplikatutako irizpideei buruzko informazioa. Halaber, aipatu du egokitasun ziurtagiria eskatzeko espedienteak sei hilabete baino gutxiagoko epean ebatzi eta jakinarazi dela, *Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan* ezarritakoarekin bat etorritik; ebazpen horretan, zehatz-mehatz deskribatu ziren aipatu irizpideak eta haren aurka jar zitezkeen errekurtsioen berri eman zen.

Gogoetak

1. Nahiz eta erakunde honek hainbat errekerimendu egin dizkion, Arabako Foru Aldundiak ez du 2007ko uztailaren 12ra arte erantzun, laguntza-eskaera 2006ko ekainean, hots, duela urtebete baino gehiago, egin zitzaion arren. Hala, beraz, urratu egin du eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak aurkezteko betebeharra, 3/1985 Legeak Ararteko erakundearen eginkizunak ezartzen dituen 23. artikuluan jasotzen duena.

Atzerapen bidegabe hau oso larria da, zehazki arlo honetan denboraren joan-etorriak mugatu egiten baititu bikoteak beren eskaeraren aldeko erantzuna jasotzeko aukerak.

2. Arabako Foru Aldundiak 2006ko (...)aren (...)a baino lehen jakinarazi beharko zukeen bere ebazpena, hau da, gehienez ere hiru hilabeteko epean eskabidea hau izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu zenetik zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluko hirugarren paragrafoak agintzen duen moduan.

Ez gatoz bat aipatu artikulua dela eta Administrazioak bere erantzunean egiten duen interpretazioarekin; honela dio: *“egokitasun ziurtagiria eskatzeko espedientea sei hilabete baino gutxiagoko epean ebatzi eta jakinarazi da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz”*. Artikulu horren bigarren paragrafoan aipatzen den sei hilabeteko epea kasuan kasuko prozedura erregulatzen duen arauan epe aurreikuspena egiten denerako da; kasu honetan, ordea, ez dago halakorik. Alderantziz, hirugarren paragrafoa aplikatu behar da; paragrafo horrek honela dio, hitzez hitz: *“Prozedurak erregulatzen dituzten arauak ez dutenean gehienezko eperik finkatzen, hau hiru hilabetekoa izango da (...) interesdunak hala eskatuta hasitakoetan, eskabidea hau izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu zenetik (...) zenbatuko dira.”*

3. Arabako Foru Aldundiak adierazi du egokitasun ziurtagiriaren eskaera ez izapidetzeko erabakia Adin Txikikoen Kontseiluak 2006ko maiatzaren 5ean hartutako erabakian oinarritu duela; horren bidez, honakoa adostu zen: *“adin irizpideak aplikatuta, premia bereziak ez dituzten 2 eta 6 urte arteko haurrak bakarrik adopta ditzaketen familiek nazioarteko adopzioarako egokitasuna lortze aldera aurkeztu dituzten eskabideak ez onartzea”*. Erabaki hori Txinako agintariak egindako errekerimenduetarekin bat etorritz hartu zen. Ezin izan dugu, ordea, horren tresna juridikoa aztertu, ez baita espedientea ekarri.

Arrazoibide hori nahasia da; aipatzen dituen “adin irizpideak” adoptatutako haurrak lehenak baino gazteagoa izan behar duela diotenak balira, hark urtebete eta 9 hilabete baino txikiagoa izan beharko zukeen, ondorengoak adin hori baitzuen 2006ko (...)aren (...)an, hots, ebazpena eman zenean, eta, beraz, ez ginateteke *“2 eta 6 urte arteko haurren”* kasuan egongo.

Aldiz, aipatzen dituen adin irizpideak adopzio hartzailearen eta adopzio gaiaren adinen artean 42 urte baino gehiagoko aldea ezin egon daitekeela diotenak badira, bistakoa da lehen adopzioa egitea onartu izanak, ama alaba baino (42



urte baino gehiago) urte zaharragoa izanik, guztiz eragozten duela famili proiektu zabalago bat osatzea eta, beraz, halaxe jakinarazi behar izango zitzaiekeen interesdunei. Horrela ikusita, aipatu oinarria Administrazioak aipatzen dituen arrazoietakoa bigarrean etzaten da; bigarren arrazoi hori ondoren aztertuko dugu.

4. Arrazoi nagusiak, aipatutakoetatik bigarrenak, dio 42 urte baino gehiagoko aldea dagoela bikoteko kide gazteenak, (...)ko (...)aren (...)an jaiotakoak, duen adinaren eta adoptatu nahi duten adingabeak duenaren artean; honek (...)ko (...)aren (...)a baino lehen jaio behar izango zukeen, data horretan jaio baitzen ondorengo.

Hainbatetan, Arartekoak Foru Aldundiengana jo du eta adierazi die familiako kideen adinek oso modu desberdinetan eragin dezakeela euren artean sortzen diren harremanetan, tartean diren gainerako inguruabar psikosozialen arabera. Horregatik, komenigarritzat jo genuen, horrek adingabearen garapenean duen eraginaren pronostikoa egiterakoan, adinaren faktorea adopzio eskatzaileen ezaugarri pertsonal guztiei buruzko iritzi banakatuaren esparruan baloratzea; horrela, gehienezko adin tartea ez gainditzea aldeko elementu gisa hartu beharko litzateke, eta ez ezinbesteko baldintza gisa.

Kexagileek duten adinaren eta adoptatu nahi luketen bigarren haurrak duenaren arteko aldea mugapena izan ahalko balitz haurra behar bezala garatzeko, hori hala dela ziurtatzeko azalpen arrazoitua egin behar izango zatekeen eta bertan adierazi behar izango zatekeen zergatik dagoen, familia honen kasuan, arrisku zehatz eta banakatua, adin tartea bigarren seme edo alabaren garapena arriskuan jar dezakeelako.

5. 1993ko maiatzaren 29an Hagan onartu eta Espainiak 1995ean berretsi zuen hitzarmenak, nazioarteko adopzioaren arloan haurra babestu eta lankidetzan aritzeari buruzkoak, ez du ezer aipatzen adinaren faktoreari buruz; estatu hartzaileko agintari eskudunek adopziozko gurasoak izango direnak adopziorako egokiak eta gai direla egiaztatu behar izango dutela baino ez du aipatzen.

Adinari dagokionez, Kode Zibilak dio, adopziorako, adopzio hartzaileak 25 urtetik gorakoa izan behar duela eta, gutxienez, adopzio gaiak baino 14 urte gehiago izan behar dituela. Hori da guztia.



Adopzioaren arloan aplikagarriak diren Prozedura Zibilaren Legeko artikuluek, hots, 1829tik 1832ra bitartekoek, ez dute ezer aipatzen horren inguruan, ezta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak ere (honen bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea).

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legeak bakarrik aurreikusten du, 83.1.k) artikuluan, adopzio hartzaileak honako baldintza hau bete behar duela adoptatzeko egokia izan dadin: *“adopzio-hartzaileak adopziogaien garapena egokia izateko ustez eragozpenik ez dakarren adina izatea.”* Legegileak, kontzienteki eta nahita, baldintza absolutu gisa gehienezko alderik ez jartzea erabaki du, behin betiko testua eta legearen zirriborroa alderatuta egindako azterlanetik ondoriozta daitekeen bezala.

Hortaz, gure iritziz, Aldundiak hartutako erabakian ezarri den moduan, gehienezko adin tartea zehatz-mehatz 42 urtetan jartzeak ez du inolako oinarriarik araudian, ez nazioartekoan ez Estatukoan, ezta autonomikoan ere.

Egokitasun ziurtagiria ematerakoan, adin tartearen alderdia kontuan izan behar da, baina inolaz ere ez *sine qua non* baldintza gisa, (...)aren eta seme edo alabatza hartuko duenaren artean dagoenaren moduko adin tartea ez dadin bilakatu iuris et de iure presuntzioa Euskal Legearen 83.1.k) artikuluan aurreikusitako baldintza beti eta inolako salbuespenik gabe betetzeko ezintasunaren inguruan.

Ararteko erakundeak horren inguruko irizpena eman du adoptatzeko egokitasuna zehaztearen ondorioetarako adin tartearak duen garrantzia dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiei egin dien gomendio orokorrean. Gomendio hori Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako 2006ko txostenaren II. kapituluko lehen atalean dago (316.etik 322.era bitarteko orrialdeak). Horren edukiari heldu diogu gure gogoeta oinarritzeko. Aipatu gomendioa ebazpen honekin batera bidali dugu (I. ERANSKINA).

6. Aurrekariak aztertzetik ondorioztatzen diren zenbait alderdik garbi uzten dute adoptatzeko egokitasuna ematearen ondorioetarako gehienezko adin tartea termino absolutuetan ezartzeak disfuntzioak eragiten dituela.



Horrela, esate baterako, gurasoak lehen alaba adoptatzeko egokitzat hartu zirenean, Aldundiak berak dioen moduan, aurreko irizpidea zegoen indarrean, hau da, gehienezko adin tartea 40 urtetan finkatzen zuena, eta, hala ere, amaren eta alabaren arteko benetako adin tartea, zehazki, (...42 urte baino gehiago...)ko izan zen. (...Urtebete baino gutxiago...)ko neskatoa adoptatu zuten, 3 eta 6 urte arteko haurra adoptatzeko egokitzat hartu ziren arren.

Horrek berretsi egiten du gure iritzia, alegia, Aldundiak malgutu egin beharko lituzkeela bere irizpideak eta ezarritako adin tartea ez lukeela ezinbesteko baldintzat hartu behar, baizik eta aldeko elementu gisa egokitasuna ematerakoan; elementu hori adopzio hartzaileen gainerako ezaugarri pertsonalekin aztertu beharko lirateke, iritzi oso eta bereziaren esparruan. Kasu honetan, bidezkoa izango zatekeen lehen adopzioaren jarraipenean sakontzea, jatorri bereko ahizpatxoak izateak adingabearentzat izango lituzkeen abantaila zehatzak ikustea, etab.

Orduan 40 urtetan finkatutako mugarekiko (...bi urte baino gehiago...)ko aldea onartu bazen, gure zalantza da ea zergatik ez den aplikatu malgutasun bera bigarren kasu honetan, gehienez (...urtebete baino gehiago...) gaindituko bailitzateke bigarren adopzioarako indarrean den 42 urteko muga. Bestela esanda, kontraesankorra da egokitasuna beren adinagatik ukatu izana, kontuan izanda faktore hori ez zela oztopo izan lehen adopzioan egokitzat hartuak izateko.

Adin tartea 42 urte baino gehiagokoa izan ezin daitekeela dioen baldintza ezartzen duen xedapen orokorra aldatu beharraz haraindi, malgutasunez jokatu dela esateko nahikoa izango zatekeen, kasu honi dagokionez, lehen alaba adoptatzeko prozesuan bikoteari 2004ko (...)aren (...)ean eman zitzaion egokitasuna kontua hartzea, horren indarraldia hiru urtekoa baita, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legearen 83.1 artikuluko azken paragrafoak agintzen duen bezala.

Ildo horretatik, espedientean ez dago inolako elementurik 2005ean neskatoaren etorrerak famili unitatean sortutako aldaketak bere garaian bikotea egokitzat hartzeko kontuan izan ziren inguruabarretan aldaketaren bat eragin duela adierazten duenik. Hori dela eta, ez dirudi aipatu artikuluko azken paragrafoan aurreikusitako berrikuspenak 2004ko (...)ean emandako ziurtagiriaren baliozkotasuna zalantzan jartzen duenik.

7. Kasu honetan hainbatetan aipatu den adinaren baldintza aplikatzeko bidezko tasunari buruzko arrazoibide guztietan bezala, Aldundiak bere ebazpenean dio bikoteak *“60-70 urte bitartean izatean beren seme-alabak nerabeak izango liratekeela; hori arrisku faktoretzat hartzen da, bai adinagatik bai eboluzioaren fase horretan gertatu ohi den gainbeheragatik, baita adoptatutako seme-alaben eboluzio aldiagatik ere”*.

Nerabezaroa haurtzarotik heldutasunera igarotzeko aldia da. Adinari eta iraupenari dagokienez asko alda daiteke pertsona batetik bestera, psikearen heldzearekin erlazionatuta baitago eta faktore psikosozial konplexuen arabera baitago. Baina gutxi gorabehera aho batez onartzen da noiz hasten den, hots, 12 edo 13 urterekin. (...Amak...) (...56 urte baino gutxiago...) izango ditu lehen alabak 12 izaten dituenetan eta (...62 baino gutxiago...) hark 18 betetzean. Egokiagoa iruditzen zaigu esatea alabaren nerabezaroa berrogeita hamar eta hirurogei urte bitartean biziko duela eta ez dirudi inguruabar horrek haren garapena kalte dezakeenik; horrek ez luke, ezta ere, bigarren alabaren garapena kaltetuko, asko jota, urtebete gazteagoa izango bailitzateke.

8. Aldundiak bere erantzunean dioenez, *“2006ko (...)aren (...)ean (...) jaun-andreei Adin Txikikoen Kontseiluak (...)aren (...)an emandako ebazpena bidali zitzaien eta, horren kontra, errekurtsua jarri ahal izan zuten jurisdikzio zibilean, administrazio egintzan bertan berariaz aipatu zen moduan.”*

Hala ere, ebazpenak honela dio hitzez hitz:

“Adin Txikikoen Kontseiluak emandako ebazpen honen kontra, aurka egiteko idazkia aurkez dezake Gasteizko epaitegietan.”

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 89.3 artikuluekin bat etorriz, *“ebazpenek (...), gainera, horren aurka zer errekurtsu jar daitezkeen, zer organo administratibo edo judizialetan egin behar diren eta horiek aurkezteko zer epe dagoen adieraziko dute”*.

Ez da aipatu aurka egiteko idazkia zer organo administratibo edo judizialetan aurkeztu behar den, ezta horretarako zer epe dagoen edo, hala badagokio, horretarako epe preklusiborik ba ote dagoen ere.

9. Ez zaigu inon ageri Administrazioak ebazpena ebatzi eta jakinarazteko arauz ezarritako gehienezko epearen berri eman dienik interesdunei, ezta administrazioaren isiltasunak eragin ditzakeen ondorioen berri eman dienik ere.



Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluko laugarren paragrafoarekin bat etorriz, aipamen horiek *“eskabidea hau izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan jaso ondorengo hamar egunen barruan ondorio horretarako bidaliko den jakinarazpenean”* barneratu behar dira.

10. Ez zaigu inon ageri Administrazioak behar bezala eman dienik interesdunei beren kasuan zeuden xehetasun eta inguruabarren berri edota bigarren seme edo alaba bat adoptatzeko egon zitezkeen aukeren berri.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

22/2007 GOMENDIOA, irailaren 14koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari egina

1. Berrikus dezala Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluko egiten duen interpretazioa (horren arabera, egokitasunari buruzko ebazpena jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da eskabidea hau izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita) edo, bestela, arauz epe luzeagoa ezar dezala, gehienez ere sei hilabetekoa.
2. Berriro azter dezala erreklamatazaileek eskatu zuten egokitasun ziurtagiria ukatzeko bere erabakia eta horren inguruan beste ebazpen bat eman dezala.
3. 3/2005 Euskal Legearen 83.1.k) artikuluan ezarritako baldintza betetzen ote duten egiaztatze aldera, familiako alderdi guztien inguruko iritzi oso eta bereizia eman dezala.
4. Egokitasunari buruzko bere ebazpenean berariaz aipa dezala zer organo administratibo edo judizialean aurkeztu behar den aurka egiteko idazkia eta hori aurkezteko zer epe dagoen edo, hala badagokio, ez dagoela horretarako epe preklusiborik, Herri Administrazioen Araubide



Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 89.3 artikulua agintzen duen moduan.

5. Honelako prozesuetan ere eskabidea jaso ondorengo hamar egunen barruan eman dezala Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42.4 artikulua aipatzen duen jakinarazpena eta bertan artikuluko aipamenak jaso daitezela, hau da, prozedurak ebatzeko eta jakinarazteko arauz ezarritako gehienezko epea, administrazioaren isiltasunak eragin ditzakeen ondorioak eta organo eskudunak eskabidea jaso duen data.
6. Azter dezala zergatik luzatu den hainbeste ez onartzeko ebazpena ematea eta, hori gehiegizko lan zamaren ondorio izan bada, modu egonkorrean gehitu dezala zerbitzuko langile kopurua eta beharrezkoak eta nahikoak diren baliabideak lor ditzala eskabideei behar besteko prestasunez erantzun ahal izateko.
7. Bidezko mekanismoak artikulatu daitezela interesdunek beren kasu zehatzari dagozkion xehetasun eta inguruabar guztiei eta adopzioarako egon daitezkeen aukerei buruzko informazio osatua jaso dezaten.